


Euskal AEko eraikuntzaren sektorea %16,8 murriztu zen 2010eko laugarren hiruhilekoan

Etxegintza %15,1 eta Obra Zibila %19,7 jaitsi ziren

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2010eko laugarren hiruhilekoan, lan egutegi homogeneoan eta urte artean %16,8 murriztu zen, termino nominaletan, Euskal AEko eraikuntza jardura. 2010ean zehar, %16,7koa izan da jaitsiera, aurreko urtearen aldean.

Urtaroen eragina zuzendu eta gero, 2010eko laugarren hiruhilekoan eraikuntza sektorea %1,8 hazi zen, 2010eko hirugarrenaren aldean.

1. grafikoa: Euskal AEko Eraikuntzaren Koiunturako Indizearen urte arteko hiruhileko hazkunde zuzendua Guztira, Eraikuntza eta Obra Zibila (%)



Iturria: Eustat. Euskal Aeoko Eraikuntzaren koiunturako indizea. (EKI)

2010eko laugarren hiruhilekoan, Eraikuntza sektorearen jaitsiera Obra zibilaren azpisektoreari - urte arteko %19,7ko jaitsiera izan baitzuen-, eta Etxegintzakoari, -%15,1koa- zor izan zitzaien. Urte osoan Etxegintza %13,6 eta Obra Zibila %22,2 jaitsi ziren.

Hiruhilekoen artean, 2010eko laugarren hiruhilekoko sektoreko jardura aurrekokoarekin alderatuz gero, Etxegintzak bilakaera negatiboa du, %2,2; Obra Zibilak, aldiz, %9,9 igo zen.

Eraikuntzako enplegua 2010eko laugarren hiruhilekoan %2,0 jaitsi zen hirugarrenaren aldean, eta %9,5 aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

1. taula: Eraikuntzaren Koiunturako Indizea Euskal AE 2010eko 4. hiruhilekoa. Aldakuntza tasak (%). Behin-behineko datuak.

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	10 4.hir / 09 4.hir	At/At-1 (1)	10 4.hir / 10 3.hir	10 3.hir / 10 2.hir
Produkzioaren indizea	-16,8	-16,7	1,8	-10,4
Eraikuntza	-15,1	-13,6	-2,2	-9,1
Obra zibila	-19,7	-22,2	9,9	-12,9
Landunen indizeak	-	-	-2,0	-2,4

(1) t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal Aeko Eraikuntzaren koiunturako indizea. (EKI)

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturari buruzko indizea \(EKBI\); prentsa ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturari buruzko indizea \(EKBI\); datu-bankua](#)